

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

22 pertsona identifikatu dituzte Rozalejoko Markesaren jauregia hustean

Erresistentzia pasiboa egin dute, hormigoizko bidoietara eta eraikineko beste elementu batzuetara kateatuz Solana aholkulariaren berri ematen du Marqués de Rozalejo jauregitik

Ostirala, 2018.eko abuztuak 17

Herritarren Segurtasunaren Arloari eta Ikerketa Kriminalaren Arloari atxikitako Foruzaingoko agenteek, Polizia Nazionalarekin koordinatuta, Rozalejoko Markesaren jauregia husteari ekin diote Iruñean.

Polizia-ekintza hau (60 foruzain tarteko) goizaldeko bostak baino minutu batzuk lehenago hasi eta bost orduz luzatu da. Eraikinaren barruan, hormigoizko bidoiei, balkoiei nahiz fatxadatik zintzilik zegoen sare bati kateatuta zeuden hogeitun bat pertsona askatu dituzte. Askatu ahala, identifikazioa eskatu diete, handik joateko baimena emanaz.

Ildo horretan, identifikatutako pertsona horietatik 4 adingabeak dira eta gurasoen esku gelditu dira.

Kanpoaldean, Esku-Hartze Dibisioko agenteak (Polizia Nazionalaren unitateekin koordinatuta) eraikina normaltasunez hustea ahalbidetu duen segurtasunezko perimetroa ezartzeaz arduratu dira.

Identifikatutako pertsonen filiazioa Iruñeko 4. Instrukzio-Epaitegira igorriko den dokumentazio grafikoari gehitu zaio.